'Arantzazutik mundura'

Joan Mari Torrealdai
Jakin taldearen izenean

Gipuzkoako 2018ko Urrezko Dominaren ekitaldiko hitzaldia
2018-12-19
Donostia

Lehen buruan, eskerrik beroenak Foru Aldundiari, Urrezko Domina Jakin Taldeari emateagatik. Gainerako guztioi, erakundeetako eta euskalgintzako arduradun, lankideoi, eta lagunoi ere, eskerrak: zuokin batera jai hau ospatzeak balio handia du guretzat.

Ohore berezi-berezia da domina hau. Ohorea eta poza. Aitortza moduan hartzen dugu, Jakinen lanari egiten zaiona, atzokoari eta gaurkoari. Aldundi honek euskara eta euskalgintzarekiko duen sentiberatasun eta hurbiltasunaren baitan kokatzen dugu domina.
Mila esker.

Gaurkoa bezalako egun batez ohikoa da geure buruaren aurkezpen historikoari ekitea, iraganari begiratutxo bat bederen ematea. Urteon buruan hainbat autokritika egin genezake, baina hau ez dugu horretarako eguna eta tokia.

Zuen baimenarekin, errepaso arin bat egingo dut, gure zenbait marka eta ezaugarri senalatuz aldi berean.

Arantzazutik mundu zabalera, horra Jakinen bidea. Eta gurea. Izan ere, Arantzazun sortu zen Jakin, 1956 urruti hartan. Sortu ere Euskaltzaindiak Arantzazun egin zuen Euskaltzaleen gerraosteko lehen Biltzar irekira begira sortu zen. Eta bertan agortu zen aldizkariaren lehen edizioa.

Arantzazun sortu zen, bai, baina ez Arantzazurako: gainerako seminarioen arteko lankidetza bilatu zuen hasieratik. Hogeita hamar urte beranduago sortu izan balitz, unibertsitate giroan koka zitekeen, unibertsitateen eta departamentuen arteko lankidetza gizarte zibiletik bultzatzeko.

Jakin euskararen lurralde askean sortu zen. Jakin ez zen inongo probintziatan jaio, ez probintzia kultural ez geografikotan. Erdi Arotik irten eta Aro Moderno guztian, Arantzazu Euskal Herriaren bilgune eta sinbolo izan da. Arantzazu euskararen, kulturaren eta artearen zentro bat

bilakatua zen Euskal Herriarentzat Jakin sortu zenean. Gerra ondoan Arantzazun aurkitu du euskarak lehenengo babesa euskaltzaleen eta Euskaltzaindiaren aurreneko bilerekin; hemen erabaki da euskara batua.

Testuinguru horretantxe sortzen da Jakin. Hamar urte egin zituen sorlekuan, eta 1967an fisikoki ere hiritartu egin zen, gaien aldetik urte batzuk lehenago.

Orain 62 urte egin berri ditu Jakinek. Ibilbide luze honetan mundua asko aldatu da, Euskal Herria ere bai. Eta Jakin.

Aldizkariak debekuak izan ditu, bi. Barne krisia ere izan du, 1966-67 urteetan. Lantaldeak maiz aldatu izan dira lehen bi hamarkadetan. Egoera berrietara moldatzera derrigorturik ere egon da 1967an, 1969an, 1977an, 1990ean.

1967ko krisiaren ondoren lortu genuen aldizkari hiritar eta modernoa, Karlos Santamaria eta Rikardo Arregiren laguntzaz.

1969ko krisian, Francoren gobernuak aldizkariaren baimena errotik moztu zigunean, alegia, Taldea eratu eta indartu egin genuen. Eta, aldi berean, proiektu berriak abiarazi genituen UZEI gauzatzeraino 1977an.

Bi gertakari horietan ez dira agortzen aldaketak, ezta hurrik eman ere. Oro har, egoera berrietara eta garai berrietara moldatuz-moldatuz egin dugu bidea, alor guztietan: pertsonalean, formula juridikoetan, euskarrietan, produktuetan, eta beste.

Historiaren errepaso honetatik lezio bat ikasi dugu, etengabe berregokitu beharra. Behin eta berriz berrasten, berrasmatzen, berregokitzen ibili behar izan dugu, jarrera hori ia-ia ezaugarri propio bihurtzeraino.

Berrasmatze espirituak, ordea, ezin du berak bakarrik esplikatu 62 urteko jarraitutasuna. Bada gako bat, baina ez da nahikoa.

Jakinen historiatik ikasi dugu taldearen indarra.

Jakinkideak sakabanaturik geundenean, ikasketak egiten, Katalunian, Italian, Frantzian edo Alemanian, Jakinek bazuen talde izaera, birtuala baino sendoagoa, komunikazio idatziaren bidez eta aldian aldiko topaketak eginez. Are eta gehiago gero, herriratu ginelarik eta bakoitzak bere bide profesionala hartu zuenean, Jakin zen gure bilgune naturala, gure taldea.

Jokin Zaitegik amestu zuen Euskal Idazleen Etxea Miarritzen barik Donostian gauzatu genuen guk 1977an. Jakin Taldea euskal kulturaren alde aritzeko elkartu da. Taldean landu ditugu gaiak, elkarrekin egin ditugu gogoetak, hausnarketak, proiektuak, ametsak.

Lau gaude omenduta, baina lagun askoren ordezkari gara. Sei hamarkadetan zuzendaritzaren itzulinguruan ibilitako lankideak badira 50 bat. Horiek guztiak eta beste asko ere ordezkatzen ditugu, harpidedunak barne. Guztiok osatzen dugu Jakin komunitatea, eta horien ordezkari gaude gu hemen ohoratuak.

Domina hau guztien artean banatuta lasaiago geratzen gara, nori berea emanez bezala.

Taldeaz ari garenez, ezaugarri pare bat aipatzea zilegi bekit: talde irekia eta askea izan da Jakin, integratzailea eta integratua.

Batetik, Jakinek, bere proiektuak eta produktuak ondu eta mamitzeko orduan, jende askorengana jo du, kanpoko lankidetzak bilatu ditugu, eta horien ikuspegiak gurera ekarri. Aldizkarian bakarrik 3.100 lankidetza izan ditugu, eta 1.250 lankide edo idazle. Berriz diot: 3.100 lankidetza eta 1.250 lankide. Bada zerbait.

Bestetik, Jakin Taldea euskalgintzan solidarioa eta integratua izan da. Jakinez kanpoko lanetan etengabe ibiliak gara, batzuetan sortzaile, eragile edo bultzatzaile; eta, beste askotan, bidelagun edo partaide. Hainbat eremutan arituak gara: Euskal Idazleen Elkartearen hasiera haietan, alfabetatze mugimenduaren hastapeneko ahaleginetan, UEUren bideratze lanetan; eta, batez ere, EKBn eta Kontseiluan, UZEIn eta Eusenorren, *Anaitasuna* aldizkarian eta *Euskaldunon Egunkaria*-n, Elkar Fundazioan eta Kulturaren Aldeko Euskal Fundazioan, unibertsitatean, eta abar.

Aipaturiko ekimen sozialez gainera, erakunde publikoekin lankidetzan ere aritu izan gara, Nafarroako Gobernuarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin.

Euskararen erakunde publiko orokorra dugun Euskaltzaindian kide, batzordekide eta lankide izan gara. Atsegin handiz jaso dugu azken orduan Euskaltzainburuaren esker ona euskararen eta euskararen Akademiaren alde egin dugun lana dela eta. Honela agurtzen gaitu: “Lortu duzue behinola Arantzazun hasi zen asmo hura euskaldun guztiontzat errealitatea izatea, eta, gainera, ezinbesteko erreferentzia! *Ekin eta jarrai*!. Joseba, Joxe, Paulo eta Joan Mari, laurok zarete euskaltzain!”.

Geurera itzuliz, gure ikur nagusia Jakin aldizkaria izan da.

Jakin ez da izan ez pulpitu, ez katedra. Plaza izan da. Herriko plaza, gogoetaren plaza eta lankidetzako elkargunea. Horregatik, pentsamenduaren geografia zabaletik hurbildu zaigu jendea.

Plataforma gisa ere aurkeztu dugu aldizkaria, jendeak bere iritzia libre eman dezan, alde eta aurka, proposamenak eta kontrakoak aniztasunean, eztabaidatu ere bai, baina irainik eta erasorik ez. Tonua asko zaindu dugu, iritzi eta pertsonekiko begirunea bezainbeste.

Gogoeta plaza horretan saiatu gara gizarte zibileko ekimen eta egitasmoak dinamizatzen euskal kulturaren alde, elkarlanak eta aliantzak proposatzen eta bultzatzen. Zubigintzan ere ibiliak gara euskalgintzaren barnean eta euskalgintza eta administrazioaren artean,
elkarrekiko mesfidantzak gainditu eta harreman-artikulazio egokiaren bideak proposatuz eta erraztuz.

Gorago esana dugu Jakin euskararen lurralde askean sortu zela, ez inongo probintziatan. Eta horregatik ulertu izan dugu gure lana, hasieratik, inorena ez eta guztiena dela, euskaraz izatekotan. Inorena ez izatea ez da inorekin ez egotea. Euskaltzale eta herritar guztiekin egoten ahalegindu gara beti. Kritikoki, maitasunez kritiko. Erdigune ez ekidistantean.

Idatzi gabeko gure estilo liburuan, eta lerro editorialean inoiz edo behin argitu dugun bezala, zabaletik jokatzeko saioa da Jakin. Beti ez genuen asmatuko, baina ondradu saiatu gara bilgune eta bateragune lana egiten, kultura eta iritzi desberdinen elkarbizitza sustatzen. Jakinek erreferentzialtasuna, independentzia eta sinesgarritasuna erdietsi baditu, bateragune izateko bokazio horregatik izan da.

Aldizkarian eta beste hainbeste osterantzeko gure konpromisoetan herrigintza euskalgintzatik proposatu dugu.

Euskalgintzaren zentraltasuna ez da eslogan hutsa. Gure proposamen nagusia da herrigintzaren eraikuntzan.

Modu desberdinetara azaldu dugu historian. Kulturaren aldarrikapena edota defentsa eginez, esaterako.

50eko hamarkadan Jakinek bere aldizkaria kultur proiektutzat proposatu zuenean,

literaturzaletasuna eta filologia zaletasuna ziren nagusi euskararen munduan, galtzaileen sindromearekin batera. Guk, baina, uste genuen kultura zela euskararen salbamendua, "kultur-mentua", hasieran kultura jasoa, eta segidan modernoa, eta geroago propioa: *Gure euskera kultur-yoera eta kultur-hats guzi-guzietan murgil ez bitartean, aizea orrazten ari gera*", horra lehen zenbakiko editorialeko hitzak. Eta beste hauek: *Edertu dezagun geure izkuntza. Egungo arazoetara egokitu. Saia gaitezen edotariko gaia ta arazo euskeraz erabiltzen*. Hau da, euskara landu eta trebatu beharra. Ondoren dator hizkuntza eredu egokia aukeratzea Txillardegiren eskutik eta Luis Villasante, Koldo Mitxelena eta Euskaltzaindiaren bidetik: eredu estandarra, jasoa eta guztiona. Euskara batua.

Hasierako giro literario eta filologikoari inguru politikoak eman zion segida 60ko hamarkadatik aurrera. Politika kultura inbadituz joan da. Ideologiak eta politikak euskara eta kultura baztertzeko edo irensteko arriskuaren aurrean, frankismoaren gau beltzean, herrigintzan kulturaren autonomia aldarrikatu dugu.

Kulturaren beregaintasuna eskatzeak frankismoan besteko zentzu betea du euskal kulturgintzaren planteamendu modernoan. Behin eta berriz errepikatu dugu euskalgintzaren eta euskal kulturgintzaren autonomia tinko landu eta zaintzekoa dela indar eta botere ideologiko, politiko eta ekonomikoen eraginpetik.

Oraingo leloak (*herria*, *kultura*, *hizkuntza*), egungo ikusmoldea ez eze, Jakinek historia osoan landu izan duena ere egoki laburbiltzen du. Hirurok elkarreraginean jardutea proposatu dugu, beti ere ezaugarri jakin batekin: gure iritzian herrigintzaren jardunean euskaltzaletasunari aitortu behar zaio zentraltasuna.

Eta, ibilian-ibilian, iraganari etorkizuna segurtatzeko ordua iritsi zaigu.
2014 urtea transmisioaren urtea izan da.

Gure memoria historikoa etorkizunaren zerbitzuan osoki jarri nahi genuen. Horregatik fundazioa. Jakin, aurrerantzean, Fundazioa da, eta, horrela, ondare material eta ez materiala oso-osorik iraganari etorkizuna emateko xedez bermaturik gelditzen da.

Aldi berean, aldizkaria ere birmoldatu genuen, azal eta mami. Paperezkoa izan da gure ikur historikoa. Behin berriz modernotu dugu. Eta ondoan analogikoa sortu. Are, gune digitala prestatu dugu, ondare osoa jendearen eskura klik batean eskainiz.

Eta, azkenik baina ez azken, errelebua, eskualdatzea. Lorea Agirre kazetari eta gizarte antropologian adituaren esku utzi genuen zuzendaritza, Kontseilu Editorial berriarekin: jakinlari

berriak antropologia, arte, filosofia, kazetaritza, liburugintza, sorkuntza eta soziologiaren eremutik etorri dira, alegia, euskal kulturgintza eta herrigintzatik. Taldean etorri dira eta taldera etorri dira.

Arantzazutik mundu zabalera egin dugun bidean transmisio hau iraultza txiki edo handi den geroak esan beza. Baina, izan, bada esanguratsua: Arantzazuri jatorrian loturiko belaunaldi baten legatua da. Mundu baten bukaeratzat ere har dezake norbaitek.

Guretzako ez da deus bukatzen, kontrara baizik. Sinetsita gaude Jakinen etorkizuna iragana baino ederragoa izango dela. Hasia dago izaten.

Bukatzera noa.

Eskerrak emanez hasi naiz, gizalegez, eta halaxe itxi nahi dut jardun hau.

Eskerrak atzera Foru Aldundiari eta beren-beregi Markel Olano Diputatu Nagusiari. Filosofia bat eskertzen dugu: erakundeen eta euskalgintza sozialaren arteko elkarlanaren filosofia, horrela bakarrik bermatu ahal izango baita euskararen garapena.

Jakinek zor asko ditu eta zor handiak ditu.

2006an urrezko ezteiak ospatu genituen, 50 urte. Eskerrak emateko baliatu genuen urtemuga seinalatu hura. Urteko ekimenen abiapuntua Arantzazun egin genuen: Jakinen bueltan ibiliriko 50 bat lagun bildu ginen bertan, sortzaileak tarteko. Gaur hilda daude. Emandako babesa eta eskuzabaltasuna Arantzazuri eskertu genion eta, ekitaldi berean eskertu genituen, urte luzetan lankide ta laguntzaile doan izan ditugun guztiak, lagun asko. Eta hauekin batera eskertu nahi ditugu orain 2014an gurera etorri zaizkigun jakinkide berriak.

Esker mila Jakini hats berria ematearren.

Joan Mari Torrealdai,
Jakin Fundazioko lehendakaria, Talde historikoaren izenean